



TXANDAKAKO LANGILEAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA

3. DOKUMENTUA

BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA PRESTATZEKO DATUAK

1.- SARRERA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak saneamenduko eta horniketako funtsezko zerbitzua eskaintzen dio komunitateari urteko 365 egunetan zehar 24 orduz, eta, horretarako, lantokietan txandaka lan egiten duten langileak ditu. Lan-ordutegiak tarteko, langileek ez dute garraio publikoa erabiltzeko aukerarik. Gainera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren edateko uren araztegi nagusia, Beteluriko Edateko Uren Tratamendutegia, Arrigorriagako udal-mugartean kokatuta dago, eta langileek ez dute garraio publiko zerbitzurik behar duten orduetan lantokira heltzeko.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da txandaka lan egiten duten langileak instalazioetara eramateko garraio-zerbitzu bat jartzea, bai langileak Beteluriko Edateko Uren Tratamendutegira eramateko bai Galindoko Hondakin Uren Araztegira eramateko.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza Agiri honen helburua Partzuergoko txandakako langileak aipatu instalazioetara garraiatzeko zerbitzuak izan beharreko baldintza teknikoak ezartzea da. Horretarako, egokitzen jo da kontratatatu beharreko zerbitzuak honako lote hauetan banatzea:

1. LOTEA	Galdakaoko HUA
2. LOTEA	Beteluriko EUT

3.- ZERBITZUAREN DESKRIAPENA

Bi loteetan komunak diren xedapenak

Zerbitzuak Galindoko eta Beteluriko txandakako langileen garraioa bermatu behar du, bi kasuetan, goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan aritzen diren langileena. Enpresa adjudikaziodunak zerbitzu bakoitzean zenbat pertsona garraiatu beharko dituen jakingo duenez, gai izan behar du zortzi pertsona garraiatzeko edukiera duen ibilgailu bat edo gehiago jartzeko langileak Galindora eramateko eta sei pertsona garraiatzeko ibilgailu bat edo gehiago langileak Betelurira eramateko (gidaria ere aintzat hartuta). Gainera, kontratuaren xedea aurrera eraman ahal izateko dagokion araudi sektorialak eskatutako betekizunak eta espezifikazioak bete behar ditu.

Langileen garraioa urteko egun guztietan egingo da, lote bakoitzarentzat zehaztutako ibilbidea eta ordutegia betez.

Partzuergoak zerbitzua behar bezala nola gauzatu jakiteko beharrezko informazio guztia emango dio adjudikaziodunari. Horrenbestez, adjudikaziodunak aurretiaz jakingo du egunero nor eta zer txandatan jaso behar duen, langileak aldiro zerbitzua eskatzen ibili beharrik gabe. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa izango da adjudikaziodunak eta langileek elkarren artean zuzeneko harremana izatea aurrez aurre edo telefono bidez, aukera izateko egutegiarekin edo langilea jasotzeko lekuarekin lotutako balizko edozein aldaketa elkarri jakinarazteko.

Aldaketok jakinarazteko ardura langileena izango da beti, inolaz ere ez Partzuergoarena.

1. lotea	Galdakaoko HUA
-----------------	-----------------------

Langilea jasotzeko lekua langileak berak zehazteko du, baina beti izan beharko da ibilbide honen barruan:

BILBO–GALINDO

Irteera-orduak: 05:00, 13:00, 21:00.

Ibilbidea: Basarrate – Aterpetxearen biribilgunea – Arabella – Zabalbide eta Zumalakarregi kaleen arteko elkargunea – Zurbaranbarri – Udaletxea – Plaza Biribila – Autonomia kalea – Zorrotza – Gurutzetako Plaza – Bide Onera – Askatasunaren hiribidea – La Bondad kalea – Galindo.

GALINDO–BILBAO

Irteera-orduak: 06:15, 14:15, 22:15.

Ibilbidea: Galindo – La Bondad kalea – Autonomia kalea – Bide Onera – Gurutzetako Plaza – Zorrotza – Autonomia kalea – Plaza Biribila – Udaletxea – Zurbaranbarri – Zabalbide eta Zumalakarregi kaleen arteko elkargunea – Aterpetxearen biribilgunea – Arabella – Basarrate.

Bilbo-Galindo (joaneko bidaia) eta Galindo-Bilbo (itzulerako bidaia) ibilbidearen distantzia 45 kilometrokoa da. Ibilbide gehien-gehiena hiriartekoa da.

2. lotea	Beteluriko EUT
-----------------	-----------------------

Langilea jasotzeko lekua langileak berak zehazteko du, baina beti izan beharko da ibilbide honen barruan:

BILBO–BETELURI

Irteera-orduak: 05:00, 13:00, 21:00.

Ibilbidea: San Ignazio – Deustu – Areatza – Santutxu – Basauri – Elexalde – Arrigorriaga – Beteluri.

BILBO–BETELURI

Irteera-orduak: 06:15, 14:15, 22:15.

Ibilbidea: Beteluri – Arrigorriaga – Elexalde – Basauri – Santutxu – Areatza – Deustu – San Ignazio.

Bilbo-Beteluri (joaneko bidaia) eta Beteluri-Bilbo (itzulerako bidaia) ibilbidearen distantzia 35 kilometrokoa da. Ibilbide gehien-gehiena hiriartekoa da.

Bi loteetan zehaztutako irteera-orduak informatiboak dira, lizitazioa egiteko unean indarrean den lan-ordutegia aintzat hartuta jarritakoak. Hori bai, kontratua betetzen den bitartean sortu litezkeen beharren arabera irteera-orduak aldatzeko aukera izango da.

4.- ALDERDIEN BETEBEHARRAK

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN BETEBEHARRAK

Kontratua behar bezala bete ahal izateko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak konpromisoa hartzen du enpresa adjudikaziodunaren esku uzteko bai harremanetarako beharrezko datuak bai lan-egutegiak, betiere alde aurretik langileen baimena jaso eta gero. Era berean, Partzuergoak modu eraginkorrean aritu beharko du enpresa adjudikaziodunarekin elkarlanean zerbitzuak behar bezala funtziona dezan.

Enpresa adjudikaziodunaren betebeharrak

- Garraiatutako langileen segurtasuna bermatzea laneko joan-etorrietan .
- Langile operatibo guztiei estaldura eskainiko dien istripu- eta heriotza-poliza bat kontratatuta izatea, aplikatu beharreko indarreko sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzetan.
- Ibilgailuek sortzen dituzten gastuak bere gain hartzea: mantentze-lanak, ordezkoko piezak, tasak, erregaia eta abar. Era berean, zerbitzuan erabilitako edozein ibilgailuk jaso lezakeen trafiko-zigor oro enpresa adjudikaziodunak ordaindu beharko du. Ibilgailu guztiek erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguru eta bidaiarientzako istripu-aseguru izan behar dute. Bidaiarientzako aseguruan, gutxienez, ibilgailu bakoitzean sartzen den bidaiari kopuru maximoa izan behar dira aseguraturak. Ofizialki aitortutako aseguru-etxe batekin izenpetuta egon behar dute aseguru guztiek. Zerbitzuaren kontratua formalizatzean, aseguru-polizak izenpetuta daudela egiaztatzen duten agirien kopiak entregatu beharko zaizkio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, edo dagokion adskripzio- edo errentamendu-kontratuak.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari zerbitzuak eskainiko dizkieten langileak identifikatzeko datuak ematea. Edozein arrazoi tarteko hasiera batean zerbitzua emateko esleitutako pertsonak aldatu beharra izanez gero, behar besteko aurrerapenez jakinaraziko zaio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, ordezkoko pertsonak Partzuergoaren instalazioetara sartzeko baimena emateko zerbitzua oztopatu gabe.
- Zerbitzua ematen duen langileekin edo ibilgailuekin izandako gorabehera oro bere gain hartzea (oporrak, absentismoa, matxurak eta abar), Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari zerbitzuaren prezioa igotzea erreklamatzeko eskubiderik gabe. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beharrezkotzat jotako ordezkapenak exijitu ahal izango ditu, jarritako baliabideak zerbitzua behar bezala eskaintzeko nahikoak ez direla uste badu.
- Eskaintako garraio-zerbitzua arautzen duen araudi administratibo guztia errespetatzea eta betetzea, bai eta ingurumen-arloko preskripzioak eta aplikagarria den beste edozein legeria ere, bereziki laneko arriskuen prebentzioarekin edo kontu sozialekin lotuta badago. Horrenbestez, legeria beteko ez balitz eta ondorioz Bilbao Bizkaia Ur

Partzuergoari erantzukizunen bat egozteko modua izango balitz, enpresa adjudikazioduna derrigortuta egongo da erantzukizun horren zenbatekoa ordaintzera, bai eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren defentsak eragindako kostuak eta gastu judizialak ere.

- Aurreko hilabetean egindako zerbitzuak zehaztuko dituen hileroko faktura Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zehaztutako moduan eta informazioarekin bidaltzea. Kontratua behar bezala kudeatzeko, Partzuergoak zerbitzuaren gaineko jakinarazpen zehatzagoak eskatu ahal izango ditu beharrezko irizten duenean.
- Zerbitzua erabiltzen duten erabiltzaileen erregistro bat izatea. Hori bai, plantillan langile berriak sartzen badira eta prestazioaren hasieran ezarritako erabiltzaileen zerrenda aldatu behar bada, Langileen Arloko arduradunari baimena eskatu beharko dio aldaketa egiteko.
- Zerbitzua emateko orduan arduragabekeriaz jokatzearagatik sor litezkeen kalteen ardura hartzea, barne hartuta hirugarrenen aurreko erreklamazioak, enpresa adjudikaziodunaren jardueran oinarrituta badaude.
- Zerbitzua behar bezala eskaintzen ez duten langileak berehala ordezte, bai ezagutza faltagaratik bai jokabide desegoki edo arduragabeak izateagatik.

5.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA

BBUPek behar diren neurriak ezarri ahalko ditu egindako zerbitzuak kontrolatzeko eta justifikatzeko.

6.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

Eskaintza kalkulatzeko oinarri diren «Eguneroko ibilbidea» zerbitzuaren parametro orokorrak (zenbatetsitako zerbitzu-kopurua eta zerbitzuko prezio unitarioa, deskribapenean emandako informazioaren arabera betiere), merkatuko prezioak aintzat hartuta kalkulatuta daude, eguneko zerbitzu-kopurua eta urte bakoitzeko egun natural kopurua oinarri.

Gehieneko prezio unitarioaren barnean honako gastu hauek sartuko dira, besteak beste:

- Garraio-azpiegiturak erabiltzearen ondoriozko gastuak.
- Ibilgailuek sortzen duten gastu oro.
- Lanak egiteko behar diren materialak, tresnak eta lanabesak.
- Kontratuaren xede diren lanak egiteko eta legeria sozialak ezartzen dituen eta kontratuaren ondoriozkoak diren betebeharrak guztiak betetzeko beharrezkoa den beste edozein gastu.

Zenbatetsitako kopuru horiek ez dute adjudikaziodunarekiko inolako zerbitzu-konpromisorik sortzen, eta, beraz, benetan egindako zerbitzuen arabera fakturatuko da, irabazi duen eskaintzak osatzen duen zerbitzu bakoitzak duen prezio indibidualean.

Eskaintza ekonomikoaren eredu honela egituratuko da:

1. lotea	Galdakaoko HUA
-----------------	-----------------------

EGUNAK GUTXI GORABEHERA	BILBO – GALINDO KM GUTXI GOR.	URTEKO KM- AK GUZTIRA GUTXI GORABEHERA	GEHIENEO PREZIOA EGUNA	GUZTIRA
365 *	45	49.275	143,18 €	52.258,87 €

2. lotea	Beteluriko EUT
-----------------	-----------------------

EGUNAK GUTXI GORABEHERA	BILBO – BETELURI KM GUTXI GOR.	URTEKO KM- AK GUZTIRA GUTXI GORABEHERA	GEHIENEO PREZIOA EGUNA	GUZTIRA
365 *	35	38.325	89,70 €	32.740,50 €

**366 egun, baldin eta bisurtea bada.*

7.- BALIABIDE MATERIALAK

Kontratuaren xedea aintzat hartuta aplikagarria den indarreko legeria espezifikoa aurreikusitako baldintza tekniko eta administratibo guztiak bete beharko dituzte enpresa eskaintzaileek.

Kalitatea eta segurtasuna zerbitzua eskaintzeko orduan

Enpresa adjudikaziodunak kontratua indarrean den denbora guztian zehar bermatu beharko du zerbitzua kalitatez eta segurtasunez ematen dela. Horretarako:

- Zerbitzua ematen duten ibilgailuek kalitate ertainekoak-altukoak izan beharko dute, lehenetasuna emanez betiere erabiltzaileen erosotasunari eta segurtasunari. Ibilgailuok dokumentazio guzti-guztia izan beharko dute eguneratuta.
- Era berean, ibilgailuek higieneko eta garbitasuneko baldintza zorrotzak bete beharko dituzte, eta barnealdeko elementu guztiek behar bezala funtzionatu beharko dute.
- Kontratua betetzeko lanetara esleitutako gidariak egiaztatutako esperientzia duten profesionalak izan beharko dira, eta beti izan behar dute xede erabiltzaileen erosotasuna eta segurtasuna bermatzea.

- Kontratua betetzeko lanetara esleitutako gidariren bat ordezte beharrezkoa balitz, ordezeko gidariek pareko prestakuntza eta esperientzia izan beharko dute, zerbitzuaren kalitateak eta segurtasun-baldintzek inolako kalterik ez jasateko.

8.- KONTRATUA ALDATZEA

Partzuergoak, kontratua gauzatzen den bitartean, ibilbidearen eta garraio-ordutegien definizioa eguneratu ahal izango du, bere antolamendu-beharrei behar bezala erantzuteko. Horren ondorioz ez da eskainitako prezioa aldatuko, salbu eta programatutako distantzian eguneko 9 km-tik gora gehiago egitea badakar 1. lotean, eta eguneko 7 km-tik gora gehiago 2. lotean.

Aldaketak ezingo du berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko bestelako unitate-prezioren bat ezartzerik.

9.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Zerbitzua behar bezala gauzatzeko behar diren datu pertsonalak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko txandakako langileen garraio ziurtatzeko baino ez dira erabiliko, eta ez beste zernahi helburutarako .

Horretarako, adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia, eta ezin izango dizkie laga datu horiek kontratua gauzatzearekin zerikusirik ez duten hirugarrenei. Halaber, tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, eta zorrotz bete beharko ditu datuak zaintzeko betebeharrak eta indarrean dagoen araudiaren arabera kargu horri dagozkion gainerako baldintzak.

Alde horretatik, enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, zeinean bermatuko baitu babestuko dituela garraio-zerbitzua egiteko ematen zaizkion datu pertsonalak. Era berean, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Orokorrekin loturiko klausulak sinatu beharko ditu, zeinak kontratuaren dokumentazioari atxikita egongo baitira.

Bilbo, 2024ko azaroak 5



Langileen Arloko arduraduna

Maria Victoria Sedano Ugarte